

MATERIAREN ALDAKETA FISIKOAK

1. Esan adierazpen hauek egia ala gezurra diren:

- Materiaren aldaketa fisikoek materiaren propietate nagusiak aldatzen dituzte.

Egia

Gezurra

- Materia mugitu egin daiteke, lekuz aldatu edo posizio desberdinak hartu.

Egia

Gezurra

- Materiaren forma ezin da aldatu.

Egia

Gezurra

- Materia aldatu egin daiteke beroaren nahiz hotzaren eraginez.

Egia

Gezurra

- Materia berotzen edo hozten denean, egoera batetik bestera pasa daiteke.

Egia

Gezurra

2. Lotu uraren zikloan gertatzen diren materiaren aldaketa hauek, beraien definizioarekin:

Lurruntzea

Tenperaturak behera egiten duenean, ur-lurruna kondentsatu egiten da, eta euri tantak osatzen dira.

Kondentsazioa

Eguzkiaren beroak lurrun bihurtzen du ur likidoa. Lurrun horrek hodeiak sortzen ditu.

Solidotzea

Eguzkiaren beroak elurra eta izotza urtzen ditu, eta ur likido bihurtzen ditu.

Urtzea

Hotza handia badago, ura solidotu egiten da eta elurra edo txingorra egiten du.